

ERDIKO KAIERA

TOÑO MURO

«Oso garbi dut Iruñean bi hiri daudela»

Toño Muro kantaria 1977az geroztik Tocamas, Fuletamol, Motos edota Fiebre taldeetan aritu da, ia beti Marino Goñi Gor diskoetxeko burua alboan izan duela. Euskal musikagintzan loria Balerdi Balerdi taldearekin lortu zuten 90eko hamarkadan, Lore etxea bezalako kantuei esker. Literatura du pasioa, eta musikaren alde irrazionala gogoko.

| JONI UBEDA, PATXI LARRION |

Argazkiak: Joni Ubeda

Hegoko lautadaren ertzetik disko berriarekin euskal musikagintzaren lehen lerrora itzuli zarete. Laster iturri zaharretik ur berria edaten arituko da zaletu ugari.

Balerdi Balerdi agertu zenean genuen inpresioa zen gure musika oso gutxik zutela gustuko, orain badirudi lehenengo disko horiek hobeki ikusita daudela. Gu geu ere musika kontuetan zalantza askorekin ibili gara. Batzuetan rocka egiten genuen, eta besteetan poperoagoak ginen. Disko berri honetan kantuetako batzuk folk estilokoak dira.

Ez zarete bat-batean eta ezustean itzuli. Aro txikia igaro zen tartean, Balerdi Erdi izenez emanaldi batzuk egin zenituztenean.

Orduko ideia Balerdi Balerdiren kantak eta aurreko taldeetan jotzen genituen batzuk berreskuratzea zen. Balerdi Erdi izena hortik zetorren, kantutegiaren erdia gure aurreko beste talde batzuetakoa zelako. Kantu berriak sortzen eta prestatzen hasi ginenean Marino nekatu eta Felix Ruperez aspaldiko lagun batekin emanaldiak ematen jarraitu genuen. Ondoren, Karlos Ortiz baxuarekin agertu garenean Balerdi Balerdi izena berreskuratzea pentsatu genuen Sergio Ibarrola Zarak eta biok. Gaurko egunez zuzeneko kantutegi ia osoa Balerdi Balerdiren bada ere, oraindik ere gustuko dut nire aurreko talde bakoitzeko kantu bana jotzea.

Musika sortzean, beti norbait alboan?

Bai, musikagintzan lagun artean izan naiz beti.


“Egungo bizimoduan gehiegizkoa da musikaren erabilera. Batzuetan askoz gusturago nago tabernan, musikarik ez dagoenean”

Taldearen ideia ezinbestekoa iruditzen zait rock munduan. Kantautore gisa aritzea beste modu batez aritzea dela iruditzen zait. Hasieran, Tocamas taldearen garaietan Patxi Osinagak eta biok elkarrekin egin genituen kantak. Berezia da hori, bi lagun artean konposatzea, oso egokia dela deritzot. Batzuetan norbera bakarrik tematzen da zerbaitetan, eta albokoak melodiaren garapena beste norabait eramaten du. Konposatzeko tenorean taldea nahi dut nik.

Pello Lizarralde idazlea musikazale amorratua da. Ispilu efektua egiten diozue elkarri, musikari eta literaturazale amorratua zarelako.

Literaturazalea eta literatur irakaslea, Iturrama institutuan. 37 urte eman ditut irakaskuntzan. Literatura askoz serioagoa eta sakonagoa iruditzen zait. Literatura adierazpide bezala oso aberatsa iruditzen zait. Musikak, ordea, badu askotan izendatu ezin

ditugun sentimenduetara iristeko ahalmena. Musikaren alde irrazional horrek erakartzen nau bereziki. Ez dakigu zergatik baina mires ten duzun goi mailako musikari baten melodiak edota herri mailako melodia batek gozatzeko ahalmen hori eskaintzen digu. Esango nuke entzun dudana musika guztiarekin gozatu dudala. Nire kasuan musika nire baitan izan da beti. Txikitan irratia bitartez, gero diskoekin. Musika guztiak gogoko ditut. Hala ere egungo bizimoduan gehiegizkoa da musikaren erabilera. Batzuetan askoz gusturago





osoa irakurria, bere nobela guztiak. Tesia egiten hasi nintzeanean atera zuten *La cuerda rota* eta *El capitán Casson*, nik uste Balerdi Balerdiren urte berberetan aritu nintzela tesia egiten.

Hainbat idazleren iritziz Euskal Herriak erdaraz eman duen idazlerik handiena da.

Ez naiz horrenbeste esatera ausartzen. Baina bere obran, hitzen bitartez mundu batean sarrarazten zaitu, erabat inguratzzen zaitu eta hor inpresio bereziak eta egundoko ezustekoak emanen dizkizu. Oso prosa indartsua du, ipuinetan bereziki, eta kontatzen duenak beti du interesa. Antoñana bezalako idazleek irakurle zaletuak behar dituzte, literaturarekiko zaletuak. Gainera, kontatzeko eran ahozko hizkuntza erabiltzen du eta bestalde, oso irudi literario eta espresibide aberatsak. Ez zuen inoiz erabiltzen prosa laua, egunkarietan edota politikarien txostenetan erabiltzen den

nago tabernan musikarik ez dagoenean, bestalde, beste zenbait tokitan musika dekorazio bezala erabiltzen da, eta hori gorroto dut.

Pablo Antoñanaren narratibaz gehien dakien pertsona dugu aurrez aurre.

Tira, Opusen ikasi nuen, eta lizentziaturan oso lan sinpleak eta azalekoak egiten genituen. Handik atera eta urte batzuk pasata doktordutza egitea deliberatu nuen. Zaragozan hasi eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan jarri zutenean, hor amaitu nuen. Ordurako pentsatua nuen hemengo idazle bati buruzko tesia egin behar nuela. Interesgarriena Pablo Antoñana iruditu zitzaidan, ez nuen bere obra

«Literatura adierazpide bezala oso aberatsa iruditzen zait. Musikak, ordea, badu askotan izendatu ezin ditugun sentimenduetara iristeko ahalmena».

prosa, eta erabiltzekotan, berezko ideiak sustengatzeko eta prosa mota hori barreagarri uzteko izaten zen. Polifonia deitzen den hori oso ongi baliatzen zuen kontatzerakoan.

“Gerra garaian Ezkaba gainean / presondegi izugarria egon zen. / Ondoren, gaztetxoa nintzela / soilik soldadu talde bat zegoen. / Etxe asko eraiki zituzten / herri txikitik, Ezkabapean, / auzo berritan, Ezkabapean. / Ezkabapean, mina eta poza neure bihotzean”. Disko berrirako idatzi duzun *Ezkabapean* kantak karga ideologiko handia du.

Oso mezu garbia duten kantak ez zaizkit gustatzen. Ez zait ateratzen. Hala, nire kantetan



**TALLERES
MITXELENA S.COOP.**



**Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua**

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com



alde handirik ez da ikusten leloaren eta estro-faren artean. Nork bere kezkekin edo obsesioekin sortzen ditu hitzak. Denei gertatzen zaigu hori. *Ezkaapean* kantari buruz, nire ideia da Iruñean badirela auzo batzuk non zerbitzu berezirik edo dotorerik ipintzen ez duten. Hiri guztietan gertatzen da hori. Hor kokatzen dituzte koartelak, kartzelak, eroetxeak. Ez dut sekulan ahaztuko Iruñeko kartzela berria lehen aldiz Euskalerrria Irratiko terrazatik ikusi nuenekoa, munstro bat; han, horrelako eraikin bat, noski, ezin da NUP eta OPUSeko eremuen artean eraiki, hor aintzira bat egin behar omen dute, belaontzi eta guzti. Oso garbi dut Iruñean bi hiri daudela. Bat goian, goiko lautadan dagoena eta bestea ibai ertzean, iparraldean. Azken horiek langile auzoak dira, erabat utziak. Unibertsitateko fakultate bat jar zitekeen han, baina ez zaie bururatzen. Ez liburutegirik, ez filmotekarik.

Ezkaapean ska klasikoaren kutsukoa da. Musikalki, zerbait bazarete, eklektikoak zarete. [Barrez hasi da] Musika mota bat eta bakarra oso ongi egiten ez dakigulako izan daiteke. Ahal dugun moduan jotzen dugu. Nik ez dut inolako irakaslerik izan, lagunengandik akorde batzuk ikasi, beste batzuk erdi asmatu... hori izan da gure belaunaldikook ikasteko izan dugun manera. Rock, pop, folk... herri musika da niretzat. Herri musikariek ez zekiten solfeoa, besteengandik ikasten zuten. Solo ikusgarri eta azkar bat baino, melodia eder bat nahiago dut. Onartzen dut musikari askok oso ongi jotzen dutela baina birtuosismoak ez nau erakartzen.

Zuzenean eskaini dituzue dagoeneko kanta berri batzuk. The Specials eta The Smithe-reens bezalako taldeen oihartzuna somatu

«Gaur egun, musika mota bat gustatzen bazaizu, badirudi beste musika klase guztiak baztertu behar dituzula, agian iritzi zaharrekoa nauzu, baina lehen talde guztiek, berdin zait Beatles edo Rolling Stones, oso kanta ezberdinak jotzen zituzten».

dugu, *Gudukan* kantari esaterako The Whoren kutsua nabaritu diogu. Diskoa aurreritirik gabe egin duzue.

Gaur egun musika mota bat gustatzen bazazu, badirudi beste musika klase guztiak baztertu behar dituzula, agian iritzi zaharrekoa nauzu, baina lehen talde guztiek, berdin zait Beatles edo Rolling Stones, oso kanta ezberdinak egiten zituzten. Nire talde begikoena den The Kinksek ere gauza bera egiten zuen. Egun, rock gogorra egin behar dugu, edo ska, eta kitto. Disko honetan ska bat jotzen ausartu gara eta egin dugu. Nire mugekin, saiatzen naiz bururatzen zaidana jotzen.

la estilo guztiak landu dituzu. Iturri zaharreko ura bezala, jota batekin ausartuko al zinateke?

Balerdi Balerdiren hasieran prestatu nuen zerbait. Jota baten egitura errespetatuz rockabilly estilora eramanda, *hortera* samar geratu zen. Eta azkenik ez genuen prestatu.

1977an dagoeneko taula gainean zinen.

Tocamasek urtebete iraun zuen, gehienbat Iruñean jo genuen. Orduan ikusi nuen jendeak kantak ikasi eta gustura abesten zituela, egarri handia zen jendartearen, oso modan zegoen anarkoen mundua, ikusten zen politikari batzuek laster egingen zutela egin zutena: etorri zen sistema onartu, egun duguna, eta gainera onartu zuten aurretik sistema horren aurka kristorenak eta bi esan eta gero. Guk orientabide anarkoa hartu genuen. Musikagatik izan dudana liskar bakarra garai hartan ORTko militante batek bota zidana izan zen, kanta horiek egiteagatik gazteak desmobilizatzen ari ote ginelako. Oso kanta ironikoak egiten genituen.

Ironikoak eta hedonistak?

Hedonistak alde batetik, baina hedonismoa oso modu ironikoan tratatzen genuen. Jende batek ironia hori ulertu zuelako izan genuen Iruñean nolabaiteko arrakasta, orduko tele-



ellaURI
HOTELA

KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta

Legatz-solomoa plantxan

(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI

+34 946 317 888 | ellaURI.com



Natura Sentitu

bistaren zaborra lixeritu eta kanta bihurtu genuen. Orduan konturatu nintzen posible zela kantatzea eta jendearen onespena jasotzea.

Euskarazko lehen kanta Fiebrerekin egin al zenuten?

Fuletamol eta Motos garaietan zerbait egin nahi izan genuen baina ez genuen osatu. Motos garaietan kanta baten bitartez Niko Etxarti omenaldia egin nahi izan genion. Kanta ia egina zegoen baina ez genuen bukatu. Fuletamolen garaian ere, estribillo bat egin genuen, baina horretan geratu zen.

Noiz hasi zinen euskara ikasten?

Iruñean zer edozer egin nuen, eta gero, Zumarragara joan nintzen. Garai hartan modan zeuden folk taldeak, nire arreba Txantreako talde batean ari zen, eta ni beste batean. Arrebaren talderako Arestiren poema bat musikatu nuen, *Biba Berango*. Nire talderako Gorka Trintxerperen (Patxi Zabaleta) poema bati musika jarri nion.

Euskal musikagintzaren zenbait aro ezagutu dituzu, egungo panoraman ezer deigarririk sumatu al duzu?

Ez dut ongi ezagutzen, baina fenomeno deigarria da musikarien maila instrumentista oso altua dela, eta ez soilik azken bi hamarkada hauetan. Bestelako mugak ikusten dizkiot fenomeno honi, estilo bakarrean trebatzen dira, eta oso ongi egiten dute hori, baina estilo horretatik atera gabe. Azken urte hauetan agertu diren taldeen artean, The Uski's, The Sparteens ditut gustuko. Horiek nahiago



Toño Muro Balerdi Balerdiko kantari eta gitarra-jotzailea, eta Patxi Larrion.

ditut experimentalago diren talde gogor horiek baino.

2012an ere, disko berriko kantuak dioen bezala, "Iruñean rock and rollik ez"?


Aspaldidanik hemen Iruñean ez dut gustuko talderik entzun. The Posies etorri ziren duela zenbait urte. The Model Rockets Altsasuko gaztetxean ikusi nituen. Oraindik Iruñean oso gutxitan dago kanpoko talde on bat entzuteko aukerarik, nire gustukoak behintzat. Disko berriak kantu bat honi buruz idatzi dut. Bertan aipatzen ditut Lakuntza, Gares, Altsasu, Bergara, Gasteiz, Sos,...

Sos herriko Luna Lunera jaialdian Elvis Costellok jo zuen.

Guk ez dugu Elvis Costello Iruñean ikusiko. ■



ATXASPI HOTELA



...ametsetan bezala

Bittiria, 24 • Lesaka (Nafarroa) • T.: 948 637 536 • hotela@atxaspi.com • www.atxaspi.com

